



G. DORÉ, LA CAPERUCITA ROJA, CUENTOS DE ANTAÑO, MADRID: ANAYA, 1983.

Txanogorritxoren inuzentziaz

MARIASUN LANDA ETXEBESTE

Oraindik norbaitek pentsatzen badu haur literatura inuzentea eta ideologiarik gabeko zerbait dela oker dago oso. Oraingo honetan, ipuin harrigarri tradizional ezagunenek bideratzen duten sexismoa aztertzen saiatuko gara, nahiz eta jakin azalezko azterketa izango dela, gai hau sakona eta konplexua bait da.

Har ditzagun, adibidez, Charles Perrault-ek, XVII. mendean, eta gero Grimm anaiek, XIX. mendean, jaso eta idatzi zituzten ipuin ezagun batzuk: Txanogorritxo, Erpurutxo, Edurne Zuri, Eder Lotia eta abar. Ahozko tradizioetik etorri zaizkigun ipuin hauek ez ziren, inolaz ere, haurrentzako pentsatuak izan, haurrek bereganatu zituzten ipuinak dira, haur literatura harrigarri tradizionalerako paradigma bihurtu direlarik. Kultura ezberdinetan aurkitzen diren ipuinak dira, balio unibertsala dute eta ahoz aho mendez mendez transmititu egin dira. Esate baterako, Mari Errauskin-en 345 bertsio edo moldaketa ezagutzen dira, mendebaldean eta ekialdean, eta horrek adierazten digu Mari Errauskin-ek azaltzen digun emakume irudia, etxeokandre apa-laren irudia alegia, oso hedatua dagoela.

Jarrera eta patu ezberdinak sexuen arabera

Adituek diotenez (Vladimir Propp, Bruno Bettelheim) ipuin hauek beraien aurreko kontzepzioaren irudiak dira, mitoaren arrazoi-
ketak, haurtzarotik heldu izaterako errito inizatikoak adierazten dituztenak. Eta aintzinean, ipuin hauek horrela ulertuak zirelako seinale dugu Charles Perrault-ek Txanogorritxo ipuinaren amaieran idatzizuen moraleja, gaur egun, edizio gehienetan aipatzen ez dena:

“Hemen ikusten dugunez, mutilek eta itxura oneko neska politiek batez ere, gaizki egiten dutela edozeinekin hitz egiten egotean, eta ez dela harritzekoa osoak horrenbeste jatea. Baina, otso guztiak ez dira berdinak. Badaude nesken atzetik ibiltzen diren umore onekoak, ondo hezituak, atseginak. Baina, kontuz gozotasunez agertzen direnekin! Horiek dira gaiztoenak eta!”

Ipuin horiek adierazten dizkiguten errito inizatikoak, ordea, oso diferenteak dira sexuen arabera. BASOA bada, adituen eritziz, haurtzarotik heltzarora pasatzeko espazio mitikoa, basoan galdu eta hil egiten da Txanogorritxo, Perrault-en bertsioan, edota Grimm anaien bertsioan, ehiztari batek salbatzen ditu neska eta amona otsoarengandik. Basoa, beraz, heriotzaren espazioa da Txanogorritxorentzat.

Askotan ere, haurtzarotik heltzarora pasatzeko errito inizatiko sinboliko honek beste forma bat hartzen du nesken kasuan: erabateko pasibotasuna. Heriotzaren forma hartzen duen pasibotasuna. Eder Loti eta Edurne Zuriren kasuetan, adibidez. Heriotzaren forma hartzen duen pasibotasun hori gorputzean sartutako zerbaitengatik dator: ardatza, Loti Ederraren kasuan, eta jandako gauzengatik, sagarrarengatik, Edurne Zuriren kasuan. Emakumezko pertsonaiek bakarrik erakusten dute heriotzaren tankerako pasibotasun hau. Hau da, nesken kasuan haurtzarotik heldutasunerako bidea pasiboki bizi izaten da.

Erpurutxo edo Pulgarcitoren kasuan, berriz, haurtzarotik heltzarorako pasabide inizatiko hori askoz arrakastatsua da: basoan galdu, ogroaren botak (sinbolo sexuala) lapurtu, eta guraso onen ondora itzultzen da bere aniatxoak salbatuz. Mutilen kasuetan, pasabide inizatikoa arras ezberdina da. Haur izatetik heldua izaterako bidean ekintza da nagusi, asmakizun edo enigamak asmatuz, era guztietako oztopo eta eragozpenak gaindituz, baso sinbolikoa garaiela bezala zeharkatuz, heltzen dira mutikoak gizonetzakoak izatera.

Bi hitzetan esateko, ipuin harrigarri tradizional hauetan, nesken eta mutilen patuak sexuen arabekoak dira, oso ezberdinak, ia kontrajariak.

Emakumearen irudia ipuin harrigarri tradizionaletan

Ez da hemen bukatzen ipuin ezagun hauek bideratzen duten sexismoa. Ipuin harrigarri tradizional hauetan emakumezko protagonistak hauek dira nagusiki: maitagarriak edo hadak, eta sorginak. Baina oinarrizko ezberdintasun bat dago huen artean: sorgina bilakatu egiten da sorgin, maitagarria, berriz, jaio egiten da. Hau da, sorginek beren burua sorgina izateko ikasi, prestatu beharra dute, beraz, maitagarriak baino ahulagoak dira. Maitagarriak, mesedea egitean, ez du ezer galtzen edo irabazten, ez du zigorrik ez saririk jasotzen: sorginak, aldiz, ekitea, oker-jokatzea, heriotzarekin ordaintzen du. Maitagarriak, edertasuna eta ontasunaren paradigmak dira, sorgina, ordea, gaiztotasunarena. Emakumearen irudiaren bi alderdiak adierazten dutela esan dezakegu.

hala ere, ipuin hauetan beste pertsonaia nagusiak ere agertzen dira: printzesa, erregina eta amaordea, besteak beste. Lehena, maitagarria bezala, edertasunaren sinboloa da, baina hilkorra. Ez da maitagarria bezain ahalguztiduna, beraz. Bigarrena, kontaketa tradizionalerako pertsonaia iragankorrenetarikoa da, “mater genitrix” soila, bere rola laburra eta akatsik gabekoa bait da: haurra munduratu eta hil egiten da, kontaketatik desagertuz. Hirugarrena, amaordea, bizi izaten jarraitu duen emakaumea dugu. Denborari, zahartzaroari eta seme-alaben hoztasunari aurre egin beharko diona; edertasuna eta senarraren maitasuna galduko duena. Pertsonaia latza, baina guztiz erreala.

Bukatzeko, datu bat: Felicidad Orquin haur literaturako aditu eta kritikari ezagunak ematen dituen datuen arabera, Grimm anaien ipuinetan pertsonaia negatiboen %80a emakumezkoa da.